



## Mugikortasuneko Kontseilu Sektoriala – Consejo Sectorial de Movilidad –

|                                                     |                                                                                                                                        |
|-----------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Deialdia egin duena</b><br>Convoca               | <b>Donostiako Udala</b><br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián                                                                    |
| <b>Data, tokia eta ordua</b><br>Fecha, lugar y hora | <b>2026ko urtarrilak 27</b> / 27 de enero de 2026<br><b>Udalbatza aretoa</b> / Salón de plenos<br><b>18:00etan</b> / A las 18:00 horas |
| <b>Amaiera ordua</b><br><b>Hora de finalización</b> | <b>19:45ean</b> / A las 19:45                                                                                                          |

### GAI ZERRRENDA:

#### ORDEN DEL DÍA:

- |                                                                                     |   |                                                                                           |
|-------------------------------------------------------------------------------------|---|-------------------------------------------------------------------------------------------|
| Aurreko aktaren onarpena.                                                           | 1 | Aprobación del acta anterior.                                                             |
| Kontseiluko kide berrien izendapena.                                                | 2 | Nombramiento de nuevos miembros del Consejo.                                              |
| Mugikortasuneko Kontseilu Sektorialeko Erregelamendu berri bat egiteko proposamena. | 3 | Propuesta de nuevo Reglamento del Consejo Sectorial de Movilidad.                         |
| Donostian oinezkoen mugikortasuna eta espazio publikoa hobetzeko estrategia.        | 4 | Estrategia para la mejora de la movilidad peatonal y el espacio público en San Sebastián. |
| Galde eskeak.                                                                       | 5 | Ruegos y preguntas.                                                                       |



**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**

HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

|                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA</b><br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO           | Olatz Yarza (EAJ-PNV)<br><b>Lehendakaria</b><br>Presidenta                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <b>TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK</b><br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | 1. <b>Bildu</b><br>Garbiñe Alkiza López de Samaniego<br>2. <b>PP</b><br>Borja Corominas Fisas<br>3. <b>PSE-EE</b><br>Ane Oyarbide Ochoa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <b>KONTSEILUKO BESTE BOKALAK</b><br>OTROS VOCALES DEL CONSEJO          | 1. <b>Federación Mercantil de Gipuzkoa</b><br>Maite Balmaseda<br>2. <b>KALAPIE Hiriko Txirrindularien Elkarte</b><br>Xabi Ruiz<br>3. <b>RAC Vasco Navarro</b><br>Maria Sánchez Marin<br>4. <b>Ciudadano</b><br>Jose Manuel González Baragaña<br>5. <b>Ciudadano</b><br>Javier Mariano Estebanez Laredo<br>6. <b>Autoridad territorial del Transporte de Gipuzkoa</b><br>Eluska Renedo<br>7. <b>Elkartu</b><br>Mikel Malcorra Ochotorena<br>8. <b>Vallina Grupo</b><br>Eneko Villaluze Landaberea e<br>Iñigo Perurena Ugalde<br>9. <b>Asociación de Empresas Hoteleras de Gipuzkoa (parte hartzaile berria / nueva vocal)</b><br>Virginia Elvira Poncelai |

**UDAL TEKNIKARIAK**  
PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL

**Mugikortasuneko zuzendaria** / Directora de Movilidad Leire Aguirre  
**Kontseiluaren Idazkaritza.** / Secretaria del Consejo. Maddalen Gomez Etzeberria (idazkari ordea), Isabel Prieto  
**Mugikortasuneko Atal Teknikoko burua/ Jefa de la Sección Técnica de Movilidad**  
Isabel Prieto  
**Partaidetza** / Participación, Iñaki Otamendi

**GONBIDATUTAKO PERTSONA**  
PERSONA INVITADA

**"Oinezkoen mugikortasuna eta espazio publikoa hobetzeko estrategia" dokumentua idatzi duen enpresaren ordezkaria** / Representante de la empresa redactora del documento "Estrategia para la mejora de la movilidad peatonal y el espacio público", Alfonso Sanz Alduán.

**PARTAIDETZAREN DATUAK**  
DATOS DE PARTICIPACIÓN

**12 MKSeko kide (+ bokal baten ordezkari bat) jarraian adierazten direnez gain: Mugikortasuneko zinegotzia, Mugikortasuneko zuzendaria, kontseiluko idazkari ordea, udal-teknikari bat eta mugikortasun-estrategia idatzi duen enpresaren ordezkaria, Alfonso Sanz Alduán**

12 vocales integrantes del CSM (+ un suplente de vocal), además de la Presidenta, la directora de movilidad, la secretaria del consejo, una técnica Municipal y el representante de la empresa redactora de la estrategia de movilidad, Alfonso Sanz Alduán.

**KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**  
SECRETARÍA DEL CONSEJO:

**Mugikortasunerako Zuzendaritza** – Dirección de Movilidad: Urdaneta 13, 3º / 943 481380 / [mugikortasuna@donostia.eus](mailto:mugikortasuna@donostia.eus)

**SAIOAREN BILAKAERA:**  
DESARROLLO DE LA SESIÓN:



## 0. Lehendakariaren agurra

Bilerari hasiera emateko, **Olatz Yarza kontseiluko presidentea** kideak agurtu ditu eta barkamena eskatu die azken bi urteetan denborarik izan ez eta Kontseilua deitu ez dutela eta.

Argitu du, Jose Manuel Gonzálezek dokumentaziorik ez izateari buruz bidalitako mezuari dagokionez, saioaren helburu nagusia **Donostiako Oinezkoen Mugikortasunaren Estrategia** aurkeztea dela. Dokumentua oraindik ez dago itxita, eta kontseiluko kideei bidaliko zaie gero, lehen balorazioa egin dezaten.

**Kontseiluaren Erregelamenduaren aldaketari** dagokionez, adierazi du organoaren iritzia jakin nahi dutela, horren arabera jarduteko.

Aktei dagokienez, agintaldi honi dagokion azkena onartzeko aurkeztu da, baina ez aurrekoa, beste agintaldi batekoa baita.

Aztergaien zerrendari ekin zaio.

## 1. Aurreko aktaren onarpena.

Aurreko akta onetsitzat jo da, inork ez baitu eragozpenik jarri.

## 2. Kontseiluko kide berrien izendapena.

Olatz Yartzak jakinarazi du kontseiluan sartzeko bi eskaera jaso dituela.

- **Ibon Arbaiza Molinarena** eskaerako bat, eta aho batez onetsi dute.
- **Gipuzkoako Hotelak** elkartearena da bestea. Elkarte horrek Virginia Elvira Poncelai izendatu du bere ordezkari. Kasu honetan, Vallina taldearen ordezkaria abstenitu egin da, eta gainerakoek elkartearen kontseiluan sartzearen aldeko botoa eman dute.

## 0. Saludo de la presidenta

La sesión se inicia con el saludo de **Olatz Yarza, presidenta del Consejo**, quien pide disculpas por no haber convocado el Consejo durante los dos últimos años por falta de tiempo.

Aclara, en relación con el correo enviado por Jose Manuel González sobre la falta de documentación, que el objetivo principal de la sesión es **presentar la Estrategia de Movilidad Peatonal de Donostia**. El documento aún no está cerrado y será remitido posteriormente a las personas integrantes del Consejo con el fin de recabar una primera valoración.

Respecto a la **modificación del Reglamento del Consejo**, señala que se desea conocer la opinión del órgano para actuar en consecuencia.

En cuanto a las actas, se somete a aprobación la última correspondiente al presente mandato, no así la anterior por pertenecer a otra legislatura.

Se procede al orden del día.

## 1. Aprobación del acta anterior

Se da por aprobado el acta anterior, al no formularse objeciones.

## 2. Nombramiento de nuevos miembros del Consejo.

Olatz Yarza informa de la recepción de dos solicitudes de incorporación al Consejo.

- Se presenta la candidatura de **Ibon Arbaiza Molina**, que queda aprobada por unanimidad.
- Se presenta la candidatura de la **Asociación de Empresas Hoteleras de Gipuzkoa**, cuyo representante designado es Virginia Elvira Poncelai. En este caso el representante del Grupo Vallina se abstiene, y el resto vota por la incorporación. Queda aprobada.



Onetsi egin da.

### 3. Mugikortasuneko Kontseilu Sektorialeko Erregelamendu berri bat egiteko proposamena.

Olatz Yarzak aldatu nahi diren bi alderdi azaldu ditu:

- **Quorumaren araubidea**, erabaki-ahalik ez duen organo bat den aldetik.
- **Batzorde iraunkorra**, haren helburuak ez baitira erabat betetzen ari.

Adierazi du hurrengo kontseilua apirilean egiteko asmoa duela. Ondoren, hitza eman die kontseilukideei.

Parte-hartzeak:

**Borja Corominasen** ustez, kontseiluaren gardentasuna indartzea, batzorde iraunkorraren organoaren bidez, ez litzateke problematikoa izango. Quorumari dagokionez, galdetu du ea horrek benetan bilerak egitea eragotzi duen.

**Jose Manuel Gonzálezek** deialdirik ez egiteari buruz eta, oro har, organo sektorialetako parte-hartzearen galerari buruz hausnartu du, eta Ingurumen Kontseiluaren kasua aipatu du. Espazio horiek sustatzeko deia egin du. Quorumari eta bozketei dagokienez, uste du hori ez dela garrantzitsuena, baina interesgarria iruditzen zaio bilerak prestatuko dituen organo bat izatea. Gainera, gogorarazi du lehen ere egin zuela lantalde bat sortzeko proposamena, erregelamenduak aurreikusitakoarekin bat.

**Olatz Yarzak** adierazi du beharrezkotzat jotzen duela erregelamendua aldatzea, kontseilurako deialdia egiteko dauden zaitasunak kontuan hartuta. Parte-hartzeari dagokionez, adierazi du izugarri gustatuko litzaiokeela jendeak gehiago parte hartzea. Azpimarratu du Mugikortasunak dokumentu eta plan ugari sortzen dituela eta elkarteei aurkeztu nahi dizkietela, baina gaur egun zaila dela erregelamenduaren prozedura betez hori egitea.

**Borja Corominasek** berriro galdetu du zergatik aldatu nahi den erregelamendua. Olatz Yarzak berriro azaldu ditu arrazoiak.

### 3. Propuesta de nuevo Reglamento del Consejo Sectorial de Movilidad.

Olatz Yarza expone dos aspectos que se propone modificar:

- **Régimen de quórum**, al tratarse de un órgano no decisorio.
- **Comisión Permanente**, cuyos objetivos no se están cumpliendo plenamente.

Menciona que se plantea convocar el próximo Consejo en abril y da paso a las intervenciones.

Intervenciones:

**Borja Corominas** considera que reforzar la transparencia del Consejo, a través del órgano de la Comisión Permanente no sería problemático. Respecto al quórum, plantea si realmente ha impedido la celebración de reuniones.

**Jose Manuel González** reflexiona sobre la falta de convocatorias y sobre la pérdida de participación en órganos sectoriales en general, mencionando el caso del Consejo de Medio Ambiente. Llama a incentivar estos espacios. En relación con el quórum y las votaciones, considera que no es el aspecto principal, pero sí ve interesante mantener un órgano que prepare las reuniones. Recuerda además su propuesta anterior de crear un grupo de trabajo previsto por el reglamento.

**Olatz Yarza** señala que considera necesaria la modificación del reglamento, dada la dificultad para convocar el Consejo. Respecto al tema de la participación, señala que le encantaría que se participase más. Subraya que desde Movilidad se generan numerosos documentos y planes que se quieren presentar ante las asociaciones y que actualmente es complicado hacerlo cumpliendo el procedimiento del reglamento.

**Borja Corominas** vuelve a preguntar sobre las razones sobre la modificación del reglamento. Olatz Yarza las vuelve a explicar.

**Garbiñe Alkiza** señala que entiende que puede ser



**Garbiñe Alkizak** adierazi du uste duela arintzeko bide bat izan daitekeela, baina kezkatuta dagoela quorumarekin. Ohartarazi du, Udalak parte-hartzea sustatzen ez badu, organoa jenderik gabe gera daitekeela.

**Eluska Renedok** uste du garrantzitsuagoa dela parte-hartzearen dinamizazioari eustea erregelamendua aldatzea bera baino, eta hori gaiak aurkezteko moduaren bidez ere bermatu behar dela. Batzorde iraunkorrari dagokionez, positibotzat jo du formaltasunak malgutzea, GGLaren ereduari jarraituz.

**Olatz Yarzak** adierazi du proposamena itxita dagoenean kontseiluko kideei bidaliko zaiela.

#### 4. Donostian oinezkoen mugikortasuna eta espazio publikoa hobetzeko estrategia

Olatzek **Alfonso Sanzi** eman dio hitza, eta dokumentu horrek HMJParen barruan duen garrantzia nabarmendu du. Azpimarratu du ez dela testu itxia eta Udala ekarpenak jasotzeko prest dagoela.

##### Aurkezpen teknikoa (Alfonso Sanz)

Honako hau adierazi du:

- **Aurrekariak eta arau-esparrua:** Mugikortasunaren egungo esparru juridikoa aurkeztu du, bai eta hiriarentzat garrantzitsuak diren hirigintza- eta mugikortasun-planak ere.
- **Ibilgarritasunaren kontzeptua:** Azaldu du plan honen helburua ibilgarritasuna hobetzea dela. Oinezkoen joan-etorri erosoak, erakargarriak, konektatuak eta seguruak areagotzea. Mugikortasuna zeharkako kontzeptu gisa aurkeztu du.

Hiriko desplazamendu-moduei buruzko datuak aurkeztu ditu, generoaren eta adinaren arabera bereizita. Borja Corominasek galdetutakoari erantzunez, datuak lortzeko zer metodologia erabili den argitu du. Ezbehar-tasa murriztearen arloan azken urteetan lortutako aurrerapenak nabarmendu ditu.

una vía para agilizar, pero muestra preocupación por el quórum. Advierte que, si desde el Ayuntamiento no se fomenta la participación, puede producirse un vaciamiento del órgano.

**Eluska Renedo** considera más relevante mantener la dinamización de la participación que la propia modificación del reglamento, y que esta debe garantizarse también mediante la forma de presentar los temas. Respecto a la Comisión Permanente, ve positivo flexibilizar formalidades, siguiendo modelos como el de ATTG.

**Olatz Yarza** indica que, una vez exista propuesta cerrada, se remitirá a los miembros del consejo.

#### 4. Estrategia para la mejora de la movilidad peatonal y el espacio público en San Sebastián.

Olatz cede la palabra a **Alfonso Sanz**, destacando la relevancia de este documento dentro del PMUS. Insiste en que no se trata de un texto cerrado y que el Ayuntamiento está dispuesto a recibir aportaciones.

##### Presentación técnica (Alfonso Sanz)

Expone:

- **Antecedentes y marco normativo:** Presenta el marco jurídico actual de movilidad, además de los planes urbanísticos y de movilidad relevantes para la ciudad.
- **Concepto de caminabilidad:** Explica que el propósito de este plan es mejorar la caminabilidad. Incremento de desplazamientos peatonales cómodos, atractivos, conectados y seguros. Se presenta la movilidad como concepto transversal.

Se presentan datos sobre los modos de desplazamiento en la ciudad, desagregados por género y edad. Ante la consulta de Borja Corominas, se aclara la metodología empleada para la obtención de los datos. Se destacan los avances logrados en los últimos años en materia de reducción de siniestralidad.

- **Revisión de los cambios en este cuarto**



- **XXI. mendearen laurden honetako aldaketak berrikustea.**

XXI. mendearen lehen laurdenean gertatutako eraldaketak berrikusi dira, besteak beste:

- Kaleak oinezkoentzat jartzeko prozesuak.
- Zubiak eta pasabideak eraikitzea eta berreraikitzea.
- Bideak berrantolatzea.

Era berean, **hobetu beharreko alderdiak** identifikatu dira, hala nola:

- Arau-estandarrak betetzen ez dituzten espaloiak.
- Zamalanekin lotutako arazoak.
- Semaforizazioaren funtzionamendua eta kudeaketa.
- Zirkulazioari buruzko Estatuko arauditik eratorritako seinale berrietara egokitu beharra.

- **Estrategiaren helburuak:**

Helburu asko aurretiazko tresnetatik datoz (HMJP eta beste udal-estrategia batzuk), eta **sei ardatz estrategikotan** zehazten dira:

1. **Oinezkoentzako sare nagusia**

Hiriko oinezkoen ibilbideen sare egituratzaile bat definitzea, auzoka deskribatuta. Oztoporik gabeko oinezkoen sekzioa, espaloien gutxieneko zabalerak eta tarte kritikoaren detekzioa azpimarratu dira.

2. **Auzoak oinezkoentzat jartzeko hobekuntzak**

3. **Oinez ibiltzeko espaloiak**

Hiri-diseinua eta espaloien estandarrak berrikustea.

## **del siglo XXI.**

Se realiza una revisión de las transformaciones producidas en el primer cuarto del siglo XXI, entre otras:

- Procesos de peatonalización.
- Construcción y reconstrucción de puentes y pasarelas.
- Reordenaciones viarias.

Asimismo, se identifican **aspectos de mejora**, tales como:

- Aceras que no cumplen los estándares normativos.
- Problemas asociados a la carga y descarga.
- Funcionamiento y gestión de la semaforización.
- Necesidad de adaptación a la nueva señalización derivada de la normativa estatal de circulación.

- **Objetivos de la estrategia:**

Muchos objetivos derivan de instrumentos previos (PMUS y otras estrategias municipales), y se concretan en **seis ejes estratégicos**:

1. **Red peatonal principal**

Definición de una red estructurante de itinerarios peatonales de la ciudad, con descripción por barrios. Se hace hincapié en la sección peatonal libre de obstáculos, anchuras mínimas de aceras y detección de tramos críticos.

2. **Mejoras peatonales de barrio**

3. **Aceras para caminar**

Revisión del diseño urbano y de los estándares de las aceras.



#### 4. Kale ibilgarriak

Kalea kudeatzeko ikuspegi berria, horren barnean semaforizazioaren tratamendua, zirkulazio-noranzkoak eta bide-espazioaren banaketa ere sartuta.

#### 5. Bizitzeko inguruneak

Espazio publikoaren kalitateari buruzko ikuspegia zabaltzea, arreta berezia jarritz eskola-ibilbide seguru eta atseginetan eta eguneroko bizitza erraztuko duten inguruneen sorreran.

#### 6. Oinezkoentzako udal-egitura indartzea eta koordinatzea

Atalen arteko koordinazioa hobetzea, jarduera askok hainbat udal-atari eragiten baitiete. Ardatz bakoitzak eskumen-eskema bat du.

Amaitzeko, Alfonsok azaldu du estrategiak **hiri-horizontea** eta etorkizuneko ikuspegia finkatzen dituela, eta jakitun dela haren irismena estrategikoa dela eta etengabeko koordinazioa behar duela.

Olatz Yarzak berriz ere esan du dokumentua bidaliko dutela, ekarpenak egiteko.

#### Eztabaida

Parte-hartzeen txandan, besteak beste, honako gai hauek planteatu dira:

**Garbiñe Alkizak** irisgarritasun-plan berriari buruz galdetu du, eta ea hori estrategian kontuan hartuko den. Oinezkoen irisgarritasunari dagokionez, mugikortasun bertikaleko plana aipatu du, bai eta hura eguneratzeko beharra ere.

**Jose Manuel González Baragaña** eskertu du Udalak gogoeta egitea eta dokumentu hori izatea bultzatu izana, eta adierazi du xehetasunez aztertu beharko dela. Hiru kontu nabarmendu ditu:

1. Ibilgarritasunaren kontzeptuaren eta espazio publikoaren tratamenduaren garrantzia, bai eta horrek klima-baldintzatzaileekin duten lotura ere, bereziki uholde-arriskuarekin.

#### 4. Calles caminables

Nuevo enfoque en la gestión de la calle, incluyendo tratamiento de la semaforización, sentidos circulatorios y distribución del espacio viario.

#### 5. Entornos habitables

Ampliación del enfoque hacia la calidad del espacio público, con especial atención a itinerarios escolares seguros y agradables, y a la creación de entornos que favorezcan la vida cotidiana.

#### 6. Fortalecimiento y coordinación de la estructura municipal peatonal

Mejora de la coordinación interdepartamental, dado que muchas actuaciones afectan a distintas áreas municipales. Cada eje incorpora un esquema competencial.

Alfonso concluye que la estrategia fija un **horizonte de ciudad** y una visión de futuro, siendo consciente de que su alcance es estratégico y requiere coordinación continua.

Olatz Yarza recuerda que el documento será remitido para aportaciones.

#### Debate

Durante el turno de intervenciones se plantean, entre otras, las siguientes cuestiones:

**Garbiñe Alkiza** pregunta por el nuevo Plan de Accesibilidad y si será tenido en cuenta en la estrategia. En relación con la accesibilidad peatonal, menciona el plan de movilidad vertical y la necesidad de abordar su actualización.

**Jose Manuel González Baragaña** agradece que el Ayuntamiento haya impulsado esta reflexión y la existencia del documento, señalando que será necesario analizarlo en detalle. Destaca tres cuestiones:

1. La importancia del concepto de caminabilidad y del tratamiento del espacio público, así como su relación con los condicionantes climáticos,



2. Mugikortasun bertikala eta horren berrikuspena, ibilgarritasunarekin eta irisgarritasunarekin lotuta.
3. Espazio publikoaren dimentsionamendua eta erabilera; adibidez, terrazek atarietara sartzeko sortzen dituzten arazoak, eta gai horiek udal-elkarteekin kontrastatzeko beharra. Era berean, lantzen ari diren irisgarritasun-plan berriari buruzko informazioa eskatu du.

**Olatz Yarzak** erantzun du zeharkako eremuak direla eta hainbat eragilek esku hartzen dutela hor; hala ere, adierazi du, nahiz eta zailtasun jakin batzuk izan diren (besteak beste, Herizko proiektuaren egoera eta prozesu judizialak aipatu ditu), ez diote arlo horietan lan egiteari utzi.

**Alfonso Sanzek** adierazi du dokumentuak ezin dituela jaso formalki onetsita ez dauden jarduketak edo planak. Adierazi du mugikortasun bertikaleko plana mugikortasun-plangintzaren barruan sartzen dela eta beste tresna batzuk ere kontuan hartu direla. Azpimarratu du estrategia *ibilgarritasuna-ingurunea* binomioan kokatzen dela, etorkizuneko ikuspegiaren dokumentu gisa, eta jakitun dela horren irismen estrategikoaz.

**Virginia Elvira Poncelaik** irisgarritasunaren garrantzia azpimarratu du, eta uste du metroaren obrak kontuan har zitezkeela horrek etorkizunean izango dituen ondorioak aurreikusteko.

**Eluska Renedok** adierazi du garraioari lotutako elementuak behar bezala kontuan hartu behar direla estrategia osoan.

**Mikel Malcorra Ochotorenak** aurkezpena eskertu du, baina irisgarritasuna erabat integratuta izango duen mugikortasun-estrategia baten falta sumatu du. Adierazi du kontua ez dela irisgarritasun-estrategia espezifiko bat izatea, baizik eta hura modu zeharkakoan sartuta egotea estrategia orokorrean.

**Leire Aguirrek** gogorarazi du aurreko bileretan Elkartu elkarteak ez zuela horri buruzko ekarpenik egin.

especialmente los escenarios de inundabilidad.

2. La movilidad vertical y su revisión, vinculándola a la caminabilidad y a la accesibilidad.
3. El dimensionamiento y uso del espacio público, citando como ejemplo problemas derivados de terrazas que dificultan el acceso a portales, y la necesidad de contrastar estos temas con asociaciones municipales. Solicita también información sobre el nuevo Plan de Accesibilidad en elaboración.

**Olatz Yarza** responde que se trata de ámbitos transversales en los que intervienen varios agentes y que, pese a determinadas dificultades (menciona, entre otras, la situación del proyecto de Heriz y procesos judiciales), no se ha dejado de trabajar en estas materias.

**Alfonso Sanz** señala que el documento no puede recoger actuaciones o planes que no estén formalmente aprobados. Indica que el plan de movilidad vertical sí se incorpora por formar parte de la planificación de movilidad, y que otros instrumentos han sido tenidos en cuenta. Subraya que la estrategia se sitúa en el binomio caminabilidad-entorno, como documento de visión de futuro, siendo consciente de su alcance estratégico.

**Virginia Elvira Poncelai** recalca la importancia de la accesibilidad y considera que podrían haberse tenido en cuenta las obras del metro para anticipar sus efectos futuros.

**Eluska Renedo** apunta a la necesidad de considerar adecuadamente los elementos vinculados al transporte en el conjunto de la estrategia.

**Mikel Malcorra Ochotorena** agradece la presentación, pero echa en falta una estrategia de movilidad que incorpore la accesibilidad de manera plenamente integrada. Señala que no se trata de una estrategia específica de accesibilidad, sino de que esta esté incluida de forma transversal en la estrategia general.

**Leire Aguirre** recuerda que en reuniones anteriores la asociación Elkartu no realizó aportaciones en este sentido.



**Isabel Prietok** adierazi du irisgarritasunaren estrategia egiteko prozesuan Elkartu deituta egon zela eta ez zuela era horretako ekarpenik egin.

**Alfonso Sanzek** esan du koordinatu beharreko estrategia ugari daudela (bizikleta, besteak beste), eta koordinazio-lan hori atalak egiten duela.

Azkenik, **Olatz Yarzak** adierazi du Donostia Oinez Dabiltzan Hirien Sarean sartu dela, eta jakinarazi du:

- Apirilean beste bilera bat egitea aurreikusten dela.
- Bilera horretan oraindik ezingo da bizikleta-plana aurkeztu.

Erregelamendua eta mugikortasun-plan estrategikoa aldatzeko proposamena bidaliko dira, baita udala lantzen ari den beste plan batzuk ere.

## 5. Galde-eskeak

Galde-eskeen txanda ireki da, eta honako hauek hartu dute parte:

**Xabi Ruizek** adierazi du **bizikleta-planaren** izapideak gehiegi luzatzen ari direla. Cristina Enearen txosten bat aipatu du, bizikletaren erabilera gelditu egin dela dioena, bai eta bizikleta-sarea handitu egin dela ere. Beharrezkotzat jotzen du proiektu jakin batzuk desblokeatzea, eta proposatu du komenigarria litzatekeela mugikortasun-proiektuen izapidetze-eta gauzatzeko egoera berrikustea, eta kontseiluan bertan bakoitza zein fasetan dagoen adieraztea. Olatzek erantzun du aztertuko dutela gai hori.

**Jose Manuel González Baragaña** esan du kontseiluaren **lan-metodologiari** buruzko gogoeta egin beharko litzatekeela, bereziki parte-hartzeari eta gardentasunari dagokienez. Uste du aurkeztutako estrategia interesgarria dela, baina hori prestatzen zenbat denbora daramaten galdetu du. Plangintza-prozesuen fase goiztiarrenetan parte hartu ahal izateko nahia adierazi du. Apirilera aurreikusitako bilkurari begira, aztertu beharreko gaien

**Isabel Prieto** indica que, en el proceso de elaboración de la estrategia de accesibilidad, Elkartu sí estuvo convocada y no realizó aportaciones en este sentido.

**Alfonso Sanz** concluye señalando que existen múltiples estrategias (bicicleta, entre otras) que deben coordinarse, y que esa labor de coordinación se realiza desde el departamento.

Finalmente, **Olatz Yarza** menciona la inclusión de Donostia en la **Red de Ciudades que Caminan** e informa de que:

- Se prevé una nueva reunión en abril.
- No será posible presentar aún el plan de la bicicleta en esa reunión
- Se remitirá la propuesta de modificación del reglamento y el plan estratégico de movilidad, así como otros planes en los que el ayuntamiento está trabajando.

## 5. Ruegos y preguntas

Se abre el turno de ruegos y preguntas, produciéndose las siguientes intervenciones:

**Xabi Ruiz** señala que la tramitación del **Plan de la Bicicleta** se está prolongando en exceso. Menciona un informe de Cristina Enea según el cual el uso de la bicicleta se ha estancado, así como la ampliación de la red ciclista. Considera necesario desbloquear determinados proyectos y propone que sería conveniente realizar un repaso del estado de tramitación y ejecución de los distintos proyectos de movilidad, indicando en qué fase se encuentra cada uno en el propio consejo. Olatz responde que se analizará esta cuestión.

**Jose Manuel González Baragaña** plantea que la **metodología de trabajo** del Consejo debería ser objeto de reflexión, en particular en lo relativo a participación y transparencia. Señala que la estrategia presentada resulta interesante, pero pregunta cuánto tiempo lleva elaborándose y expresa su deseo de poder participar en fases más tempranas de los procesos de planificación. Propone que, de cara a la sesión prevista para abril, se pueda realizar una propuesta colectiva de temas a tratar.



proposamen kolektiboa egin ahal izatea proposatu du.

Era berean, zenbait galdera zehatz egiten ditu:

- **Zirkulazio-ordenantzari** dagokionez, galdetu du ea zein egoeratan dagoen indarreko araudira egokitzeko prozesua eta ea eperik aurreikusi den horretarako.
- **Oinezkoen mugikortasuna hobetzeko estrategiari** dagokionez, ekarpenak aurkezteko epeak zehazteko eskatu du, baita kontseiluko kideen eta teknikarien arteko baterako lana ondoren nola antolatuko den zehazteko ere.
- Halaber, dokumentu estrategikoaren inguruan egin beharko diren izapideei buruz galdetu du, bereziki osoko bilkurak onetsi behar al duen.

**Olatz Yarzak** erantzun du **Tokiko Gobernu Batzarrak** onetsi behar duela estrategia, eta adierazi du ez dakiela osoko bilkurara ere bidaliko den. Ekarpenak egiteko prozedurari dagokionez, adierazi du dokumentuarekin batera bidaliko dutela epeei eta parte hartzeko bideei buruzko informazioa ere. Lantalde berriak sortzeari dagokionez, adierazi du, ikusirik zernolako karga teknikoa daukaten, horrelako talde gehiago eratuz oso zaila izango litzatekeela planetan aurrera egitea. Zirkulazio-ordenantzari dagokionez, adierazi du une honetan ezin duela eperik zehaztu.

**Ane Oyarbidek** beste kontseilu sektorial batean izandako esperientzia azaldu du, eta organo horien funtzionamenduarekin eta parte hartzeko dinamikekin lotutako alderdiak nabarmendu ditu.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, lehendakariak amaitutzat eman du bilera.

Asimismo, formula varias preguntas concretas:

- Sobre la **Ordenanza de Circulación**, pregunta en qué situación se encuentra su adaptación a la normativa vigente y si existen plazos previstos.
- En relación con la **Estrategia de mejora de movilidad peatonal**, solicita que se concreten los plazos para la presentación de aportaciones, así como el modo en que se articulará posteriormente el trabajo conjunto entre miembros del Consejo y personal técnico.
- Pregunta también por los trámites posteriores del documento estratégico, en particular si requerirá aprobación por el Pleno.

**Olatz Yarza** responde que la Estrategia será aprobada por la **Junta de Gobierno Local**, indicando que desconoce si también se elevará al Pleno. Señala que, en cuanto al procedimiento de aportaciones, se remitirá el documento junto con la información relativa a plazos y cauces de participación. Respecto a la creación de nuevos grupos de trabajo, manifiesta que, dada la carga técnica existente, resultaría muy difícil avanzar en los planes mediante la constitución de más grupos de este tipo. En relación con la Ordenanza de Circulación, indica que no puede concretar plazos en ese momento.

**Ane Oyarbide** expone su experiencia en otro consejo sectorial, poniendo de relieve aspectos relacionados con el funcionamiento de estos órganos y las dinámicas de participación.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión.